

2016KO URRIAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2016ko urriaren 27an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

EAJ-PNV taldeko zinegotzi honeek ez dira bertaratu: IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna eta JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenakiritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2016KO IRAILAREN 22AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2016ko irailaren 22ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori ago batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

301/2016.- *Suministros Muriza S.L.*” enpresari epe zehatza emotea legezko balio akustikorik sor ez datien.

302/2016.- *Kredituak aldarazteko espedientea onestea.*

303/2016.- *Probalekuko leihoak aldatzeko obrak kontratu txikiaren bidez.*

304/2016.- *Abuztuaren 10eko alkatetzaren 277/2016 dekretua berrestea.*

305/2016.- *Fakturen obligazioak onartzea.*

306/2016.- *Espediente bat hastea pertsona bateri Biztanleen Udal Erroldan baja emoteko.*

307/2016.- *EAJk aurkeztutako errekurtsua ezestea.*

308/2016.- *Bizkaiko Nagusien Surf Txapelketa antolatze baimena.*

309/2016.- *Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

310/2016.- *Finantza arloan udal zailtasun handiak daukiezan Bizkaiko udalen ekonomia saneatzeko diru-laguntza izapidetzea.*

311/2016.- *Fakturen obligazioak onartzea.*

312/2016.- *Irisgarritasun planak moldatzeko diru-laguntzaren eskabidea egitea*

313/2016.- *“Promociones Gailur Alde, S.L.” enpresari agin-deia egitea S ZR 03-02-1 eta S ZR 03-02-2 lursailak garbi eukiteko.*

314/2016.- *Fatxada eta teilatu bat konpontzeko udal lizentzia.*

315/2016.- *Ezkontza bat egiteko ahalmenak emotea zinegotzi bateri.*

316/2016.- *Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

317/2016.- *Bakioko Udala adiskidetze-ekitaldi batera eta, beharbada, horren ostean egingo dan judiziora bertaratzea eta udal korporazinoa defendatzeko eta ordezkatzeko zeregina Bizkaiko Foru Aldundiari emotea.*

318/2016.- *Bakioko Udala egingo dan judiziora bertaratzea eta udal korporazinoa defendatzeko eta ordezkatzeko zeregina Bizkaiko Foru Aldundiari emotea.*

- 319/2016.-.- *Nominak ordaintzeko ebazpena.*
- 320/2016.- *Gazte ekipamenduen sarea bultzatzeko diru-laguntza eskatzea.*
- 321/2016.- *“Kayak Surfeko Txapelketa” egiteko baimena.*
- 322/2016.- *Fatxada bat margotzeko udal lizentzia.*
- 323/2016.- *Alkatetzaren bagilaren 8ko 170/2015 Dekretuaren g) atala aldaraztea.*
- 324/2016.- *Bakioko 6. poligonoko 63. lursailean ez dagoala zuzeneko sarbiderik berrestea.*
- 325/2016.- *Bide publikoaren okupazioa Emakunderen XIII. berdintasun foroa egiteko.*
- 326/2016.- *2016ko abuztuaren 15eko dantza eta musika ekitaldia dala eta, Itxas-Alde dantza taldeari 3.000 euroko diru-laguntza emotea.*
- 327/2016.- *Zenbait saldo zuzentzea.*
- 328/2016.- *Zorren konpentsazioa egitea.*
- 329/2016.- *Fakturen obligazioak onartzea.*
- 330/2016.- *Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*
- 331/2016.- *“Juego de Tronos” teleaia grabatzeko beharrezko baimenak emotea.*
- 332/2016.- *Ondasunen banaketa egiteko baimena.*
- 333/2016.- *Alkatetzaren irailaren 21eko 263/2015 dekretua berronestea.*
- 334/2016.- *Baserri bateko etxebizitzan egokitzen obrak egiteko udal lizentzia.*
- 335/2016.- *Probalekuko aldagelak erabilteko baimena.*
- 336/2016.- *LEGASKO, S.L. enpresari 10 egun balioduneko epea emotea itsas pasealekuko argiztapenean dagozan akatsak konpontzeko.*
- 337/2016.- *Pertsona bateri Udal Erroldan baja emotea.*
- 338/2016.- *BST Txapelketa antolatze baimena.*
- 339/2016.- *Kredituak aldarazteko espediente onestea.*

Segiduan, Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

302/2016 dekretua: Horren bidez, 2016ko udal aurrekontuaren 8. aldarazpen espedientea onartzen da, aldarazpenak kreditu gaikuntza izaera izanik:

Sarrerren egoera

Kredituen gaikuntza finantzatzen duten sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontu kontzeptua	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
459.601.00.03	Ladera Aitzgane	0	150.608,07 €	150.608,07 €
342.622.02.01	Probaleku	0	22.056,50 €	22.056,50 €
GUZTIRA		0,00 €	172.664,57 €	172.664,57 €

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek honako aurrekontu partidei eragiten diete:

Aurrekontu partida	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
720.01	Subvención infraestructuras	0,00 €	22.056,50 €	22.056,50 €
720.02	Subvención imprevistos Aitzgane	0,00 €	150.608,07 €	150.608,07 €
GUZTIRA			172.664,57 €	172.664,57 €

310/2016 dekretua: Foru Aldundiak egoera ekonomiko larrian dagozan udalei diru-laguntzak emateko araudia kaleratu dau, eta horrerri oratuz, dekretu horren bidez egin dana da dirulaguntza eskatu.

313/2016 dekretua: *Promociones Gailur-Alde SL* enpresek egindako indusketaren ondorioz, Elexalde eremuko ZSR 03-02-01 eta ZSR 03-02-01 lursailetan dagoan zuloa euri-uraz beterik dagoan ezkerro, eta, ganera, oso lohi eta zikin, enpresa horrerri agindeia egin jakon ur-putzu hori hustu eta mantentze beharrak egiteko, horretarako epe zehatza emonaz, eta horrek erantzun dau esanez ez datorrela bat agindu horregaz, baina agindua beteko dauala. Edozelan be, kurioso da enpresek emondako argudioak zuloa urez beteta eta arratoiak egotea justifikatzeko; izan be, dino normala dala euri-uraz beteta egotea klimatologiaren ondorioa dalako eta alde horretan arratoiak lehendik dagozala.

317 dekretua.- “Gure-Etxean” beharra egiten eban behargin batek auzi-demandea aurkeztu dauala eta, Bakioko Udala adiskidetze-ekitaldi batera eta, beharbada, horren

ostean egingo dan judizinora bertaratzea eta udal korporazinoa defendatzeko eta ordezkatzeko zeregina Bizkaiko Foru Aldundiari emotea.

318/2016 dekretua.- “Gure-Etxean” beharra egiten eban behargin batek auzi-demandea aurkeztu dauala eta, Bakioko Udala egingo dan judizinora bertaratzea eta udal korporazinoa defendatzeko eta ordezkatzeko zeregina Bizkaiko Foru Aldundiari emotea.

339/2016 dekretua: Horren bidez, 2016ko udal aurrekontuaren 9. aldarazpen espedientea onartzen da, aldarazpenak kreditu gaikuntza izaera izanik:

Sarrereren egoera

Kredituen gaikuntza finantzatzen duten sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontu kontzeptua	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
410.02	Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak Enplegua Sustatzeko Toki ekintzetarako laguntza	0,00 €	14.886,20 €	14.886,20 €
GUZTIRA		0,00 €	14.886,20 €	14.886,20 €

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek honako aurrekontu partidei eragiten diete:

Aurrekontu partida	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
920.131.00.03	Udal lantaldeko lan legepeko langileen gastuak	61.770,79 €	74.519,29 €	12.748,50 €
920.160.03.04	Udal lantaldeko aldi baterako langileen gizarte segurantza	61.893,12 €	64.030,82 €	2.137,70 €
GUZTIRA		123.663,91 €	138.550,11 €	14.886,20 €

3.- 2016 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUARI BURUZKO 10. ALDARAZPEN ESPEDIENTEA ONARTU, BETI BE TRANSFERENTZIA KREDITUEN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ

Kreditu transferentziaren nondik-norakoa:

KREDITUAK TRANSFERITZEKO PROPOSAMENA

Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)

Aurrekontu kontzeptua	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
165.221.01.21	Electricidad	272.268,92 €	230.312,42 €	41.956,50 €
231.481.00.02	TRANSF.CTES. A GUBER- NTERA	10.000,00 €	5.000,00 €	5.000,00 €
GUZTIRA		282.268,92 €	235.312,42 €	46.956,50 €

Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Aurrekontu kontzeptua	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
459.601.00.03	Ladera Aitzgane	150.608,07 €	167.342,30 €	16.734,23 €
342.622.02.01	Probaleku	22.056,50 €	36.208,01 €	13.222,27 €
150.624.00.01	IBILGAILUA	0,00 €	12.000,00 €	12.000,00 €
330.481.01.20	TRANSF.CRTES. A GRUPOS CULTURALES	23.800,00 €	28.800,00 €	5.000,00 €
GUZTIRA		196.464,57 €	244.350,31 €	46.956,50 €

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horri buruzko azalpenak emon dauzan ezker, bai eta informazio batzordean aztertu dan ezker be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira bederatz), erabagi hau hartu dau: **2016 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 10. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu transferentziaren modalidadean**

4.- 2016 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUARI BURUZKO 11. ALDARAZPEN ESPEDIENEA ONARTU, BETI BE KREDITU GEHIGARRIEN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ

Kreditu gehigarrien nondik norakoak

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
920.933.00.05	Hornitzaileen maileguaren amortizazioa	307.042,88 €	371.746,99 €	678.789,87 €
GUZTIRA		307.042,88 €	371.746,99 €	678.789,87 €

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Partiden kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	
870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko ezarpena (2015eko ekitaldiko diruzaintzako gerakina)	371.746,99 €

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horren arrazoiak emon dauz, hauxe esanez: bere egunean EAJ-PNV taldeak egindako udal kudeaketa txarraren ondorioz, hurrengo udal gobernuak, EAJ-PNVkoa be bai, 5.000.000 euroko mailegua eskatu eban ezkerro, 371.746,99 euroko superabita mailegu horren amortizazioa estaltzeko erabiliko da; izan be, aurrekontuaren aldarazpena horretarako egin da.

Era berean, honakoa be aitatu dau: mailegu hori egon ezik superabita beste zereginetarako erabiltea ondo etorriko zan, esate baterako, eskolan aterpea egiteko, kiroldegia herritarrentzat harik eta egoera onenean zabaltzeko, udal lorezaintza osoa kontratatzeko, kaleen garbitasuna kontratatzeko, eta, azken batean, mailegu hori dala-eta zerbitzuetan egin diran murrizketak (merkatzeko) desagertzeko.

Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse, ganera, espedientea informazio batzordean aztertu dala kontuan izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira bederatz), erabagi hau hartu dau: **2016 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 11. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu transferentziaren modalidadean**

5.- KONTRATAZINOA ADJUDIKATZEKO PROZEDUREARI EKIN, UDALEKO KIROL INSTALAZINOETAN KIROL JARDUEREN PLANIFIKAZINOAGAZ ETA GARAPENAGAZ ETA SARBIDEEN KONTROLAGAZ ZERIKUSIA DAUKIEN ZERBITZUA EMOTEKO ETA BERTAN AURRERA EROANGO DIRAN PRESTAKUNTZA IKASTAROAK MODU INTEGRALEAN KUDEATZEKO; ERA BEREAN, KONTRATAZINO ESPEDIENTEA ETA BALDINTZA BEREZIEN ETA TEKNIKOEN AGIRIAK ONARTU.

Zinegotzi guztiek klausula administratiboen eta baldintza teknikoaren orrien mamina ezagutzen daben ezkerro, bai eta orriok arautzen daben helburuari buruz informazio batzordean berba egin dan ezkerro be, udal idazkariak ganeko azlpen honeek emon dauz:

Kiroldegiko kirol jarduerak eta instalazioak planifikatu eta kudeatzeko eta bertan emongo diran prestakuntza zerbitzuen kudeaketa osoa egiteko, kontratuaren adjudikazioaren orri arautzaileok udalak onartzen badauz, deialdi publikoa egin behar da interesatuta dauzan enpresek proposamenak aurkeztu daiezen. Tramitazioa

presazko bidetik egingo da, horretarako, espedientean azaltzen dan interes publikoa dagoala-eta. Ondorioz, Sektore Publikoko Kontratuen Legean arautzen diran epeak erdira murrizten dira eta, hori dala eta, enpresek proposamenak aurkezteko hamar egun naturaleko epea izango dabe, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan biharamunetik kontetan hasita.

Horren ostean, Kontratazino Mahaiak "A" (agiri administratiboak) eta "B" (erispide subjetoen bidez baloratu beharreko agiriak) gutun-azalak zabalduko dauz. Kontratazino Mahaiak agiri horreen ganeko teknikoen balorazino-txostena jasoten dauanean, "C" (erispide objektuoen bidez baloratu beharreko agiriak) gutun-azalak zabalduko dauz, bertan dagozan agiriei puntuazinoa emon eta horrerri teknikoen balorazino-txostenean ageri diran puntuazinoa gehitu eta, ondorioz, Mahaiak organo eskudunari puntu gehien zenbatzen dauan enpresaren aldeko proposamena egingo deutso. Kontratuak urtebeteko epea izango dau, baina aukerea egongo da urtebetez luzatzeko kontratistea eta udala adoz badagoz.

Segiduan, Amets Jauregizar alkate andreak hauxe adierazo dau interes publikoa dala-eta presazkoa izango dala tramitazinoa, interes hori hauxe izanik:

- *Oraingo tarifak aldatzea, kiroldegira pertsona guztiak bertaratuko dirala bultzatzeko.*
- *Gaur egungo baldintzak hobetzea, bai herritarrenak bai alkarteenak.*
- *Prestakuntza zerbitzua arautzea, gaur egungo baldintza agirian araututa ez dagoana.*

Azpimarratu gura izan dau kontratazino honen bitartez egingo dan urratsa dala gaur egun era pribatuan kudeatzen dan kiroldegia, era publikoan kudeatzea; izan be, indarrean dagozan prezio pribatuaren ordez, prezio publikoak ipiniko dira. Beraz, prezio publikoak indarrean egoteak udalak kiroldegian egingo diran jardueri buruzko kontrola eukitea erraztu egiten dau eta interes publikoa bermatu, hau da, horrek kiroldegiaren erabilera herritar guztientzat eskuragarriagoa izatea dakar. Prezio pribatuak, ostera, beste interes batzuk daukaz helburu modura.

Enpresek ordaindu beharreko kanonari jagokonez, indarrean dagoenagaz alderatuz, etorkizunean enpresek urteko kanona handiagoa ordaindu beharko dau, baina udalaren helburua ez da kanona jasotea, harik eta abonatu gehien egitea baino. Hori dala eta, enpresek, gaur egun dagozan abonatuaren kopurutik abiatuta, zenbat eta abonatu gehiago egin, orduan eta kanon txikiagoa ordaindu beharko deutso udalari .

Horretatik aparte, udalak, enpresak aurkeztutako proposamenak aztertzeke orduan, kiroldegia goizez zabalik egotea baloratu egingo dau, klausula administratibo orriak dakarren modura.

Herriko kirol eta kultur alkarteakaz eta eskolako arduradunakaz bilerak izan doguz, eta euren aldarrikapenak orrietan sartu doguz.

Azkenik, adierazo orri honeek herriaren beharrezkoen erantzun behar deusela eta hori helburutzat hartuz idatzi dirala. Ganera, kiroldegiaren kudeaketa eredu hau ez da azkena, hau da, apurka-apurka kiroldegiaren erabilera harik eta publikoagoa egiten saiatu behar gara-eta.

Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean, dino: *orriak, bai administratiboak eta bai eta teknikoak be, lar zehaztuta dagoz, hau da, oso zorrotzak dira, eta enpresaren bat aurkeztea gaxa izango da, ez dagoalako aukerarik pleguan adierazoten dan zerbitzuaren helburuaren intepretazino zabalala egiteko. Aurreko udal legegintzaldian onartu genduzan pleguak malguagoak ziran, zerbitzuaren helburuaren interpretazinoa zabalagoa egiteko aukera emoten eben-eta, eta hala eta guztiz be enpresa bat baino ez zan aurkeztu. Ganera gertau leiteke baldintzak hain gogorak izanik enpresaren bat baja handia eskaini eta kontratua eskuratzea, baina gero kontratua beteteko orduan zailtasunak izatea. Beraz, kontratua adjudikatzen izapidetu dan espedientearen kontra ez gagoz, baina botoa emoteko orduan abstenidu egingo gara.*

Alain Gómez zinegotziak, Bako Bai taldearen izenean, dino: *bere egunean, pleguak osotzeko orduan, EAJ taldeak orain dinona esan behar eban, pleguak zehaztuegiak dirala, ze orduan kontsensu bateratura heltzeko ahaleginak egingo genduzan. Uste dogu orriak idatzita dagozan modura egonda herriarentzat onenak dirala eta ikusi egin beharko da ia inor aurkezten dan kontratuaren adjudikazina. Orain idatzitako orriak lehengoak baino osotuagoak dira eta guk kontratazino espedientearen aldeko botoa emongo dogu. Deialdira inor ez aurkezteko arriskua hor dago, baina hori gertauko balitz, arrazoiak aztertu eta kiroldegia zelan kudeatu erabagi beharko geunkez, baina guztien mesederako.*

Aitor Apraiz zinegotziak dinotso arriskua ez dala deialdia hutsik geratzea, enpresaren bat lehiaketara ezinbestean aurkeztu baja handia eginaz, kontratu eskuratu eta gero pleguetan azaldutakoa bete ezinik ibiltea baino, ze horren ondorioak enpresek berak, bertako beharginak eta udalak nozituko leukezelako.

Alkate andreak dino: *Udalak herriko instalazinoen erabilera herritar guztien eskuragarri egotea bermatu behar dauan ezker, beti be interes publikoko arrazoiakaitik, kiroldegiak, bere egunean, 750 abonatu izatetik, kudeaketea pribatizatukeran abonatu kopurua 280ra jaisteak arriskuan bai ipini dau udalaren zeregin hori, hau da, interes publikoa bermatzea; izan be, arriskua lehen hartu zan kiroldegia igerileku eta guztiz egin zanean. Gauzak dagozan modura egonda ikusten dogu kiroldegia gitxiegi erabilia dagoala, eta kiroldegiaren zerbitzua harik eta jende gehienei eskaintzeko apustua egin behar dogu, eta apustu horrek kapital merkatuaren ikuspuntutik, agian, arriskua dakar, baina Udalak arriskuaren ganetik daukan erantzukizun politikoari aditu behar deutso, erakunde publikoa dan neurrian, eta arrisku hori gauzatzen bada, aztertuko dogu kiroldegiaren kudeaketa eta ustiapena zelan egin, hori bai, interes publikoa kontuan izanik.*

Ostean, zinegotziak tramitatutako espedientearen ganean jakitun dirala eta gaia Informazio Batzordean aztertu dala be kontuan izanda, bozkatzeari ekin deutse, eta, ondorioz, EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien (Alain Gómez eta Josu Garai) aldeko botoagaz, korporazioa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Bakioko Udaleko kirol instalazioetan kirol jardueren planifikazioagaz eta garapenagaz eta sarbideen kontrolagaz zerikusia daukien zerbitzua emoteko eta bertan aurrera eroango diran prestakuntza ikastaroak modu integralean kudeatzeko esleipenari buruzko prozedureari hasikera emotea, bai eta kontratazino espedientea onartzea be, kontratua eraenduko daben administrazino klausulen eta baldintza teknikoen orriak barruan dirala. Gauzak horrela, adjudikazinoa prozedura zabal bitartez izapidetuko da, kontratuak urtebeteko iraupena izango dau (kontratua urtebete luzatu ahal izango da). Litzitazino prezioa 12.100 euro/urteko izango da, BEZa barruan dala (Administrazinoari ordaindu beharreko errenta), prezio hori goratuz hobetu daitekena.

2.- Aipatutako espedientea presakotzat jotzea, zemendiaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuak onetsitako Sektore Publikoaren Kontratuak buruzko Legearen Testu Bateginaren 112. artikuluan aurreikusitako ondorioekaz.

3.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko hiru zinegotziak (Aitor Apraiz, Gorka Azaola eta José Luis Urrutia) abstenidu egin dira.

6.- ARAU SUBSIDIARIOETAKO BD-2.4 JARDUNUNEAREN GANEKO XEHETASUN-AZTERLANAREN ALDARAZPENA BEHIN BETIKO ONETSI; IZAN BE, EKIMEN PRIBATUAREN EKIMENEZ IZAPIDETU DA PROZEDUREA.

Udal Idazkariak espedienteari buruzko azalpenak emon dauz era honetara:

Mirian Doria Renobales andreak Arau Subsidiarioetako BD 2-4 jardununeke xehetasun-azterlanaren aldarazpena aurkeztu dau. Proposatutako aldarazpenak jardunune horren B lursailari baino ez deutso eragiten, horren helburua hauxe izanik

2015eko bagilaren 27an behin betiko onartutako xehetasun-azterlanean zehaztuta dagozan sestra eta ibilgailuen sarbidea aldarazotea, baina bakarrik lursail horreri jagokonez.

Xehetasun-azterlanaren aldarazpena hasikera baten onartu zan ezker, jendaurrean ipini zan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, egunkari baten, herriko taulan eta herriko web. orrian iragarkiak ipiniz. Era berean jardununeko jaubeei entzunaldia emon jaken alegazioak aurkeztu ahal izateko. Inork be ez dau alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu eta, beraz, udalbatzari jagoko egitasmo horren behin betiko erabagia hartzea.

Hori dala eta, gaia Informazino Batzordean aztertu dan ezker, zinegotziek botoa emon dabe, eta, ondorioz, korporazinoa legez osotzen daben zinegotzien gehiengo osoak aldeko botoa emon dauan ezker, hau da, bertaratutako guztiek: EH Bildu taldea osotzen daben laurak (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio), EAJ-PNV taldeko hiruk (Aitor Apraiz, Gorka Azaola eta José Luis Urrutia) eta BakioBai taldeko biak (Alain Gómez eta Josu Garai), Bakioko Udalbatzak, erabagi hau hartu dau:

LEHENENGOA: Arau subsidiarioetako BD-2.4 jardununearen ganeko xehetasun-azterlanaren aldarazpena behin betiko onestea.

BIGARRENA: Erabagi hau BD 2-4 jardununeko jaubeei jakinaraztea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaraztea.

7.- ADMINISTRAZINO ELEKTRONIKOA ARAUTZEN DAUAN ORDENANTZA HASIKERA BATEN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak, dino:

Gaur egun indarrean dagoan udal ordenantzea “.org” da eta proposatzen dana da, horren orde, “.eus” izatea; aldaketa hori egiteko arrazoiak bi dira:

Batetik “.eus”, tresneria dalako bai euskerearen erabilera normalizatzeko, bai eta hizkuntza hori beste hizkuntzen maila berberean jarteko be.

Eta, bestetik, “.eus”, euskerearen komunitatearen eta euskal kulturaren karakterraren ikurra dalako.

Hori dala eta, gaia Informazino Batzordean aztertu dan ezker, zinegotziek botoa emon dabe, eta, ondorioz, korporazinoa legez osotzen daben zinegotzien gehiengo osoak aldeko botoa emon dauan ezker, hau da, bertaratutako guztiek: EH Bildu taldea osotzen daben laurak (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio), EAJ-PNV taldeko hiruk (Aitor Apraiz, Gorka Azaola eta José Luis Urrutia) eta BakioBai taldeko biak (Alain Gómez eta Josu Garai), Bakioko Udalbatzak, erabagi hau hartu dau:

LEHENENGOA.- Administrazino elektronikoa arautzen dauan ordenantza hasikera baten onartu.

BIGARRENA.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 70 eta 65.2 artikuluen arabera, aldarazpena hamabost egun buruan indarrean sartuko da, beti be Bizkaiko Aldizkari Ofizialen oso-osorik argitaratzen dan biharamunetik kontetan hasita.

8.- BAKIOKO UDALAK ONARTUTAKO FAKTUREN ORDAINKETEN BETEARAZPENARI BURUZKO EGOERAREN BARRI EMON, BETI BE 2016KO BIGARREN HIRUHILABETEKOARI JAGOKONEZ.

Garagarrilaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikuluaen arabera, diruzainek edo kontuhartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2016ko urriaren 13ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren arabera:

HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK	
<i>Ordaindu diran legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe barruan</i>
284.127,82 €	255 ordainketa kopuru
<i>Ordaindu diran legezko epetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe kanpora</i>
17.135,23 €	20 ordainketa kopuru

HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epetik kanpo</i>
74.330,90 €	25.529,07 €

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan agiri da.

Udalbatza horren guztiorren jakinaren ganean geratu da.

9.- 2016KO EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON, BAGILAREN 30ERA ARTEKO EPEARI JAGOKONEZ.

2016ko urtarrilaren 1etik bagilaren 30era arteko epeari jagokon udal aurrekontuaren betearazpenari buruzko agiriak zinegotziek daukien ezker, horren barri emon da, beste barik.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Alkate andreak ia inork eskaerarik edo galderarik egin gura dauan galdetu dau.

Gorka Azaola zinegotziak (EAJ-PNV), pleno aretoan pankarta bi eskegi dauzala eta, Josu Garai zinegotziak, BakioBai taldearen izenean, Gorkari pankarta horreek zer dala-eta eskegi dauzan galdetu deutso.

Gorka Azaolak, erantzunez, horretarako arrazoi bi honeek azaldu deutsoz:

Bata da, EAJ-PNV taldeko zinegotziak informazino batzordeetara eta udalbatzetara joateagitik ez dogula dirurik jaso.

Bestea, artistak irakaslearen beharra daukiela, eta udal gobernuak irakaslerik ez egotea erabagi dauzala, uste dauzalako jarduera horrek ez daukala irakaslearen beharrianik.

Horren harira, Amets Jauregizar alkate andreak, dinotso:

1.- Bakioko Udalak hartu eban erabagia izan zan zinegotziei diru saria ordaintzea, baina informazino batzordeetara eta udalbatzetara joaten baziran. Horretarako, derrigorrezkoa da idazkariak ziurtatzea nortzuk joan diran batzar bakotxera. Horregaitik, egin diran ordainketak izan dira udal idazkaria egon dan batzarretara joatearren. Esan beharrekoa da, ordainketak berandu egin dirala, eta ganera, egin dirala BakioBai taldeak eskatu euskulako, EAJ-PNV taldearen aldetik, barriz, gaur arte ez dot entzun ordainketa horren aldeko eskabiderik. Izan be, diru saria batzarretara joaten diran zinegotziak eta ez beste inork kobratzea da bidezkoa, eta halan dala esan deuskue udal ekonomia sailetik. Udal idazkaria udalbatzetara joaten da, eta egiaztagiria egin dau azalduz aurtengo urteko udalbatza bakotxean parte hartu daben zinegotziak zeintzuk izan diran, eta ordainketak horren arabera egin dira. Irailean hasita udalbatzak prestatzeko bileretan be parte hartzen dau.

2.- Udal gobernuan hasi ginanean ohartu ginan ikastaro bi emoten zirala, bata, margolaritzari buruzkoa eta, bestea, eskulanei buruzko, eta horreen gastua zala margolaritza ikastaroari jakonez, 619,00 euro urteko, partehartzaileak 8 pertsona izanik; eta eskulan ikastaroari jagokonez, 800,00 euro urteko partehartzaileak 6 pertsona izanik. Horren harira esan behar da musika eskolan 77 pertsona aritu dirala eta udalaren aldetik ez dauzala diru-laguntzarik jasoten. Batzordean, horren ganean berba egin eta adierazo zan egoera biak alderatu ezkerro injustua zala 14 pertsona ikastaroan aritzeagaitik udalak 1.419,00 euro ordaintzea, eta musika eskolan aritzeagaitik, barriz, ezer ez.

Eskulanaren kasuan, batzarra egin genduan arduradunakaz eta esan geuntsen udalak diruz laguntzeko ikastaroan jende gehiagok parte hartu behar ebala. Horretarako, Marta-Txori alkartearen bidez propagandea egin eben jende gehiagok izena emoteko helburuagaz, baina helburu hori ez zan lortu.

Margolaritza kasuan, berdin eskaini jaken, hau da, Marta-Txori alkartearen triptikoen bidez propagandea egitea, baina ezetz esan eben. Orduan, esan jaken ikastarora jende gehiago etortea lortu ezik, udala prest dagoala eskola magistralak kontratatzeko, hau da, eurak esatea segun zein hiletan, margotzeko zelako teknikak gura daben erabili, eta udalak teknika horrerri buruzko ikastaroak ordaintzea. Edozelan be, harritzekoa da, mota horretako kexa alderdi politiko batek egitea, herritarrak egin beharrean.

Gorka Azaolak dinotso: tristea eta onartezina da kultura arloan 600,00 euro urteko kostua daukan murrizketea egitea, irakasleak jasoten ebana. Eskola magistralei buruz, hauxe: ez da bardin astero ordun batzuetan irakasle bat jardutea edo urtean behin pintura teknika zehatz bat azaltzeko adituren batek jardutea, ze azken hau oso labur geratzen da.

Alkate andreak dinotso kultur eta kirol alkarteentzako diru-laguntzak, aurten 5.000,00 euro gehitu dirala eta, ganera, esfortzu handia egiten gagozala handik edo hemendik dirua aterateko kultura arlorako.

Alkate andreak eta Gorkak aitaturako gaia dala-eta eztabaida izan dabe eta bakoitxak berenari eutsiz amaitu dabe, beste barik.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 20:10 ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria